



Kantu Zaharraren Eguna kari ehun lagun bildu ziren Oxtikenekoak elkarteak antolatu bazkarian. Bazkalondo alaia iragan zuten, kantu kantari eta heldu den urterakoz hitz ordua finkatu dute.

Bigarren Kantu Zaharraren Eguna

Uztailaren 16ean, Igan-dearekin iragan da, 2garren aldikotz, «Oxtikenekoak» elkarteak, urtero, antolatu nahi duen: «Kantu Zaharraren Eguna».

Hor, 100 bat presuna bildu ziren, elgarrekin emaitako, kasik ahanziak edo kasik gehiago entzuten ez diren kantu paregabe batzu.

Batzuek eta bertzek emantikako kantu frango, Tipi Ttapa aldizkarian, azken hilabete hautan agertuak izan direnak, ukan dute, egun hortan, publikoki xaramelatua izaiteko parada, gainera kantu horiek orai, liburuxka batean bilduak dira, eta, zorionez ez dira bertze hainbat

bezala, denboraren barna, galduak izanen. Eskertzekoak dira, kantu horiek memorioan edo paperetan atxiki dituztenak: Arana Paxkalin, Bergara Ganizon, Billon Fifin, Borda Pierro, Brave eta Bessonard, Casaubon Jakes, Elhorga Laurent «Arretxea», Fagoaga Frantxua «Apeztei», Fagoaga Gabi Agozteikoa, Fagoaga Pello, Halsouet Ganix, Irastorza Extetana, Irubetagoiena Jako, Irubetagoiena Antton, Lazkano Jan-Pier Mendiboure Paxkal, Soudre Jan-Pier, Kattin Soudre, Jan-Battit Tapia, Zamora Benane.

Oren batean, bazkaria aintzin, parte hartzaile guzien

argazki bat tiratua izan zen, Ibarrungo Pilota plazan, eta gero kantariak ohoratzeko, Paxkal Duhauk, Txistuan, eta Mathieu Iribarrenek, Dantzian, eskaini zuten deneri, hain beti hunkigarria den, Aurreku bat. Gero «Kantu Zaharraren Egun» hunen funtsa, Mixel Mendibourek azaldu zuen hitz hauekin:

«Gure buraso eta ingurukoek eman digute kantuz hartzeko gogoa, kantuaeren maitasuna. Orain, guri da ondoko belaunaldiari gure gazteei, maitasun bera eskaintzea, ezagut dezaten euskaraz kantatzea zoin den gozagarri eta plazerrez betea. Kantuak bezala euskarak ere,

Europako hizkuntza zaharrena baita, iraun eta bizi dadila Senperen eta Euskal Herri osoan. Gure buraso eta arbasoak, dauden lekutik, ere, loriatu daitezzen».

Gero bazkaria iragan zen, manera ezin hoberenean, gelditu gabe kantuak bat bertzearen ondotik airatu baiziren, Inarriako teiltatu pean, aratseko berant arte.

Aratsalde guzian eman kantuak, grabatuak izan dira, bai soinu mailan, bai «videoz» ikusteko gisan, hori, Euskal Kultur Erakundeak igorri Teknikalarieri esker. Duela 45 urte, Ganizon Bergararen ahotik, grabatu aire bat, entzun ahal izan zen ere, egun hortan (Rafael Parejo, Soinu-Ikerlariari gandik.)

Egun horren antolatzeke eman duten laguntzarentzat, eskertzekoak dira: Euskal Kultur Erakundea, Tipi-ttapa, Kutxa Banketxea, Oxtikeneko Elkartea, Oiartzungo Herriko Etxea, J. Noel Bessonard, Paxkal Duhau, Ernest Etxevery, Mathieu Iribarren, André, Jeanine, Serge Harrisgain, Iturria Amaia, Argitxu, Pello Fagoaga eta Inarriako Langileak, Jakes Larre, Lazkarai Patxi Argazkilaria, Joana, Maiana, Mixel Mendiboure, Rafael Parejo. Angèle, Auxtin, Beronika Zamora, Berho Frantxua eta bere laguntzaileak, Pierre Legagnoa eta bere langileak.

Orai, «Sekulan, bi aldiz, 3 garren aldi bat gabe» Frantsesez erraten denari jarraikiz, eta bidea idekiz, oraino bertze, gure etxe edo memorio xokotan, atxeman diteizen kantu zaharri, errexiki pentsa daitaie, datorren urtean ere: «Kantu Zaharraren Egun» bat gehiago iraganen dela. Beraz, kantazale guzieri: «Heldu den urtearte!».



Auxtin Zamora